

GLOBAL TRAINING BEKAK 2021 IZEN-EMATEAK

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA: EKAINAREN 14TIK UZTAILAREN 16RA ARTE

- Global Training BASQUE TRADE & INVESTMENT, Eusko Jaurlaritzako Nazioartekotzeko Euskal Agentziak bultzatutako programa baten baitan daude, erakunde laguntzaile ezberdinen bitartez kudeatzen dena, eskaintza aukera zabala eta irismen handiagokoa bermatzeko asmoz.
- Global Training Bekak 2021 programak zazpi erakunde laguntzaile ditu (gehienak beste batzuekin lankidetzan). Erakunde horiek dira beken kudeaketa eta tutoretza gauzatuko dutenak eta baita eskaintza egingo dutenak ere, guztira 495 beka eskainiz.
- Beka guztiak, zein erakundek kudeatzen dituen kontuan hartu gabe, eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, baita diru-kopuru bera ere, eta aukeraketarako derrigorrezko estandarrak betetzen dituzte (ingelesa menperatzen denaren akreditazioa, aukeraketarako elkarriketak, eskatutako dokumentazioa batzea, etab.)
- Deialdia hasten den unetik aurrera, erakunde kudeatzaile bakoitzak bere webgunean jarriko ditu eskaintzen dituen eskaintzak.

- **Izena emateko prozedura:**

4. Eskaera bakarra:

Eskatzaile bakoitzak erakunde batean BAKARRIK eman ahalko du izena.

5. Nola aukeratu izena emateko erakunde laguntzailea:

- Eskatzaileak webguneak aztertu beharko ditu eta gehien interesatzen zaionean izena eman, ikasketak non gauzatu dituen kontuan hartu gabe.
- Ondoko estekan eskaerak aurkezteko epearen inguruko informazioa aurki daiteke eta baita eskaintzen webguneetarako lotura zuzenak ere:
<https://basquetrade.spri.eus/eu/laguntzak/global-training-nazioartekotzeko-mugikortasun-programa/>

6. Erakunde laguntzailea aukeratutakoan:

- Aukeratutako erakunde laguntzailearen webgunean izen-ematea online egin ostean, erakunde horren argibideak jarraitu beharko dira izen-emate eta aukeraketa prozesuan zehar.